

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4769

141/2023 DEKRETUA, urriaren 3koa, Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal bat kargutik kentzeko eta beste bat izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren atariko tituluaren II. kapituluaren daude araututa interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta bere lurraldean dauden interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu autonomia erkidegoek portuetako agintaritzen antolaketa-egituraren partaidetza handiago izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuen artezkaritza-organoak dira.

Zehazki, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluen 1. eta 2. zenbakiek hau ezartzen dute:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoek aurreko apartatuko c) letran aipatzen diren bokalak izendatzen dituztenean, irizpide hauek errespetatu beharko dituzte:

a) Itsas kapitaina eta beste hiru bokal izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari Kontseiluan. Hiru bokal horietako bat Estatuaren abokatua izango da, eta beste bat Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoa presidenteak eta lau bokalek ordezkatzeko dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainerako kideen % 33ko ordezkartza izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik honako hauei egokituko zaie ordezkartza: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dion/en udalei; eta, ondoren, gainerakoei: zerbitzuguneak udal-mugartean zer azalera hartzen duen, hainbateko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari izango dira: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberenak, enpresa- eta sindikatu-erakundeenak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoenak.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, erakundek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak erakunde publikoko presidentek egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenak, lehenengo apartatuko c) letran aipatzen direnak, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berriro ahal izango da, hurrengo apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkatzeko dituzten antolakundek, organismoek eta erakundek hala proposatuta.»

Horren ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Rafaela Romero Pozo andrea Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal kargutik kentzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuta.

2. artikulua.— Azahara Domínguez Urtizberea andrea izendatzea Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu bokal baten kargugabetzea eta bestearen izendapena Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko presidenteari jakinarazten zaion egunetik aurrera. Dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 3an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.